



Zumardia

etxebizitza

Aldakerak:
Ahozkoa:



43° 10' 53"

2° 36' 19"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Abadiñoko Gerediaga auzotik Garairantz doan bidearen ondoan kokatzen den bizitza bateko txaleta. 1995. urtean eraikitako etxe honek *Zu-mardia* izena hartu du.

Txalet berria dugu, inguruko baserri-etxeen tradizioari begiratuta jasotakoa. Fatxada era simetrikoan antolatua dauka, isurki biko teilatupean. Harria erabili zuten beheko solairuan, eta horma luzituak, bestean. Gehienetan legez,

erdialdea dauka indartuta, hor baititu kokatuta atartea, egurrezko dintelduna, eta gaineko balkoi sakona. Aldamenetan leiho bana dauka, beheko solairuan, eta balkoia osatzen duen leiho luzea, aldiz, gainekoan. Horko leihoburuak egurrezkoak dira, baita teilatuko habeak eta hegalarri eusten dioten besoak eta izkinan dagoen imitaziozko egitura ere, aldameneko bi aterpeetan errepikatuko dena.

toponimia

Etxe izen honen osagaiak zumar zuhaitz izena, Ulmus sp, ugaritasuna adierazten duen -di atzizkia eta artikulua dira eta iraganeko basoen oihartzuna dakarkigu gogora. Zumarra ohikoa zen, basoak osatzen ez bazituen ere, baina XX. mendean Ameriketatik etorritako gaixotasun batek ia desagertarazi du Europatik. Gaixotasun hori zomorroek zabaltzen dute eta hilabete baten buruan hil dezake zumarrik sendoena. Europako hainbat lekutan belardien arteko hesietako zuhaitz guztiak hil ditu. Antzina gurdietan eta itsasontzietan erabiltzen zen bere zura.